

Zk-1210

9/1999 ERABAKIA, otsailaren 26koa, Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendariarena, 1998ko abenduaren 22ko zirkularra Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitarateko dena. Banan-banako, enplegu eta elkartekideen modalitateetako BGAEek ekarpenak mugatzeko, prestazioak aintzatesteko eta metatutako erreserbak itzuli edo lekuz aldatzeko garaian bete beharreko arauak jakitera ematen dituzten zirkularrak.

Borondatezko Gizarte Aurrezaintzarako Erakundeetako buruzko urriaren 27ko 25/1983 Legearekin eta lege horren araudia onartu zuen otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuarekin bat etorritik, Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak 1998ko abenduaren 22ko zirkularra prestatu du. Zirkular hori erabaki honen bidez argitaratzen da.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko otsailaren 26a.

Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendaria,
LUIS MARÍA VALLE BOLINAGA.

1998ko abenduaren 22ko zirkularra, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendariarena, banan-banako, enplegu eta elkartekideen modalitateetako BGAEek ekarpenak mugatzeko, prestazioak aintzatesteko eta metatutako erreserbak itzuli edo lekuz aldatzeko garaian bete beharreko arauak jakitera ematen dituenak.

Azken urteotan BGAEak izugarri hedatzen ari dira, bai beren aktiboen zenbatekoari dagokionez, bai sistema osagarri hauetara jotzen duten elkartekideen kopuruari dagokionez, eta hala, aurrezaintza-sektoreak Lan eta Gizarte Segurantzarako Zuzendaritzari honi egiten dizkion kontsulta ugarietarako, arlo honetan dauden hutsuneak osatu nahi ditugu zirkular honen bidez, horretarako jarduketarako irizpideak bateratuz.

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila da mota honetako erakundeen gaineko administrazio-kontrola duen tutoretza-organoa nagusia eta urriaren 27ko 25/1983 Legeko IV. atalburuari jarraiki, Borondatezko Gizarte Aurrezaintzarako Erakundeetako buruzkoa, eta otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuko V. atalburuari jarraiki, BGAEei buruzko Legearen Araudia onartzen zuena, zirkular hau osatu dugu Euskal Herriko Borondatezko Gizarte Aurrezaintzako Erakundearen Federazioaren bidez, Euskal Herriko aurrezaintza sektorean diharduten erakundeekin eztabaidatu ondoren. BGAEen legezko eraketaz geroztik, borondatezko izazkeraren askea zuten tresna osagarriak izan dira erakunde hauek Euskal Autonomia Erkidegoaren baitan, eta beren azken helburua «aberas asmorik gabe, elkartekideak beren bizia, baliabideak edo jardueraren arriskutan jarritzatuz gora-beheretatik babestea» izan da.

Nº-1210

RESOLUCIÓN 9/1999, de 26 de febrero, del Director de Trabajo y Seguridad Social, por la que se acuerda la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Circular de 22 de diciembre de 1998 por la que se trasladan las normas a seguir por las EPSV de las modalidades individual, empleo y asociados en la limitación de aportaciones, en el reconocimiento de prestaciones y en la devolución o traslado de las reservas acumuladas.

De conformidad con la Ley 25/1983, de 27 de octubre, sobre Entidades de Previsión Social Voluntaria y el Decreto 87/1984, de 20 de febrero, que aprobó el Reglamento de dicha Ley, la Dirección de Trabajo y Seguridad Social ha elaborado la circular de 22 de diciembre de 1998, cuya publicación se acuerda mediante la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de febrero de 1999.

El Director de Trabajo y Seguridad Social,
LUIS MARÍA VALLE BOLINAGA.

Circular de 22 de diciembre de 1998 del Director de Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco por la que se trasladan las normas a seguir por las EPSV de las modalidades individual, empleo y asociados en la limitación de aportaciones, en el reconocimiento de prestaciones y en la devolución o traslado de las reservas acumuladas.

Ante el avance que están alcanzando en las últimas fechas las EPSV tanto en el volumen de sus activos como sobre todo en el número de asociados que confían en estos sistemas complementarios y de cara a unificar criterios de actuación ante las numerosas consultas que el sector de la previsión dirige a esta Dirección de Trabajo y Seguridad Social, esta circular pretende acometer la cobertura de parte de las lagunas existentes en este apartado.

El Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social es el máximo órgano tutelar del control administrativo sobre este tipo de Entidades y en base a la Ley 25/1983 de 27 de octubre sobre Entidades de Previsión Social Voluntarias en su capítulo IV y el Decreto 87/1984 de 20 de febrero por el cual se aprobó el Reglamento de la Ley sobre EPSV en su capítulo V, ha elaborado la presente circular una vez debatida con el sector de previsión del País Vasco a través de la Federación de Entidades de Previsión Social Voluntaria de Euskadi. Las EPSV desde su creación legal han constituido el nivel complementario de carácter voluntario y libre, dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el fin último de «sin ánimo de lucro, proteger a los asociados frente a eventos que puedan poner en peligro su vida, recursos o actividad».

Erakunde hauek derrigorrezko Gizarte Segurantzak osatzen duen aurrezaintza-sistemen esparrutik kanpo egituratzen dira eta oso eremu zabala hartzen dute, horren ondorioz, kasuismoa eta berariazkotasuna nagusitu direlarik.

Derrigorrezko sistemarekiko osagarritasuna bermatzea izan beharko luke legezko irudi hauen gaineko arauketaren oinarria. Hori dela eta, elkartekide bakoitzak banan-banako, enplegu edo elkartekide modalitateko BGAE batean sartzeko erabakia hartzean, Sistema Publikoak eskaintzen dion pentsioa osatzeko egiten du, edo bestela, edozein arrazoiengatik, dagokionean pentsio hori eskuratzetik izan ezean, ordezkotako pentsio bat eskuratzeko. Horixe hartzen du abiapuntutzat zirkular honek eta printzipio horixe hartu beharko litzateke oinarritzat honelako sistema osagarriekin berekin dakartzaten gainerako ondorioei dagokienez: prestazioak jasotzeko aukera, zerga-murrizketa, metatutako erreserben itzulketa (aldeaz aurretiko erreskatea) edo lekuz aldatzea, besteak beste.

BGAEEK ez dira, bada, zergak aurrezteko produktu bat bailiran erabil daitezkeen zerga edo finantza alorreko tresnak.

Horregatik bada, bereizi egin beharra dago honelako erakunde bat osatzen duten irudien artean: elkartekidea, pentsio edo prestazioaren titularra eta onuraduna. Guztiek muga argia dute prestazioa eragiten duen egitate eragileari dagokienez. Aurreneko bi aukerak (elkartekide eta prestazioen titular izatea) ezin dira uzartu eta, horregatik, ezin da onartu elkartekide bat elkartekide den aldi berean prestazioen hartzaile ere izatea, hau da, ezin du gertakizun berean emale eta prestazioen titular izan. Pasibo egoerara igaro den elkartekide bati pentsioa edo aldian behingo prestazioak jasotzearekin batera, aldi berean, BGAE batera ekarpenak egiten hasi edo jarraitzea ahalbidetuko balitzaio, ekarpenak eta prestazioak uztartuko lituzke, eta zergei zein aurrezaintzari dagokienez irregularra den egoera bat sortuko litzateke.

Nolanahi ere, eguneroko jarduna oso aberatsa da eta kontrolatzen eta ikuskatzen zailak diren egoerak aurkezten zaizkigu etengabe, Erakunde hauen «borondatezkotasunaren» oinarrian datzan erabakitzeak askatasunean biltzen direnak guztiak ere. Elkartekide bakoitzak, gainerako elkartekideen eta Erakundearen beraren eskubideen kaltetan izan gabe, zor zaion prestazio osagarria noiz eta nola jaso nahi duen erabakitzeak eskubidea baitu.

Halatan, berak erabakiko du kasu bakoitzean, elkartekide aktiboa izateari utzi eta pentsio edo prestazioaren hartzaile (pasibo) noiz bihurtu nahi duen. Araupetzen den eskubide hori egungo indarreko araudian jasotzen da, izan ere bertan ez baita mugatzen prestazioak

Estas instituciones se configuran fuera del marco de los sistemas de previsión que constituye la Seguridad Social obligatoria y abarcan un campo amplísimo donde en muchos casos el casuismo y la especificidad se han convertido en norma.

La búsqueda de la complementariedad al Sistema obligatorio debe ser el referente que guíe la normación de estas figuras. Por ello esta Circular, se basa en la premisa de que la decisión que cada asociado toma, al integrarse en una EPSV de carácter individual, de empleo o asociados, lo es para buscar el complemento de su pensión del Sistema Público y, en el caso de que a esta última no pueda accederse, por cualquier circunstancia, una pensión sustitutoria en la fecha en que acaezca la contingencia protegida. De dicho principio debe derivarse el resto de consecuencias que esto acarrea: acceso a prestaciones, reducción fiscal, posible devolución (rescate anticipado) o traslado de reservas acumuladas etc.

Las EPSV no constituyen, por tanto, instrumentos financiero-fiscales a utilizar como si de un producto de ahorro-fiscal se tratase.

Es por ello necesario diferenciar las distintas figuras integrantes de una Entidad: el asociado, el titular de pensión o prestación y el beneficiario. Todas ellas tienen su frontera en el hecho causante que da lugar a la prestación, dando paso de una a otra situación. La conjunción de las dos primeras (asociado y titular de prestaciones) es insostenible y por ello no se puede admitir que un socio sea a la vez receptor, esto es, no podrá ser, al mismo tiempo, aportante y titular de prestaciones por la misma contingencia. Si a un asociado que haya obtenido la condición de pasivo, al percibir pensión o prestaciones periódicas, se le permitiera, durante el mismo periodo, comenzar a realizar o continuar realizando aportaciones a una EPSV nos encontraríamos con la paradoja de que podría compaginar aportaciones con prestaciones produciéndose una situación irregular tanto fiscal como de previsión.

No obstante, es cierto que la práctica diaria es muy rica y continuamente se producen situaciones difíciles de controlar y supervisar que derivan de una característica, que se concreta en el derecho a la libertad de decisión, digna de protección, y que da nombre a estas Entidades «la voluntariedad». Cada asociado, sin perjuicio del respeto a los derechos del resto de los asociados y de la propia Entidad, tiene el derecho a decidir cuando y como va a hacer efectiva la prestación complementaria a la que resulta acreedor.

En tal sentido será él quien determine, en cada caso, el momento en que pasará de ser asociado en activo a titular de pensión o prestación (pasivo). El derecho que se regula está incorporado en la normativa actual toda vez que la misma no señala la fecha concreta de

jasotzeko eskubidea duen egitate eragile bakoitzaren data zehatza zein den, eta gehiegikeriak eragoztearren, zeharritu egin behar da eskubide horren gauzapena.

Mugaketa horiek zehatz-mehatz betetzen direla bermatzearren, Erakunde hauetako bakoitzeko elkartekide egiten diren pertsona guztien gaineko barne-kontrola ezarri beharra dago, Erakunde hauetako guztien estatutuetan argi eta garbi azaltzen baitira beren jarduna araupetzen dituzten mugaketak eta eskaintzen dituzten prestazioak.

Era berean, elkartearen kide egiteko boletinetan klausula esplizitu batzuk jaso beharko lirateke, dago-kion prestazioen ordainketa mugatu eta, gertakizuna gertatu ondoren, gertakizun horretarako ekarpenak egitearen inguruko bateraezintasunak eta mugak argitzeko.

Bestalde, 1998 urtearen amaieran hamar urte betetzen dira banan-banako modalitateko Borondatezko Gizarte Aurrezaintzarako Erakundeetarako lehen ekarpenak egiten hasi zirenetik.

Urteurren horrek 87/1984 Dekretuaren bidez onartutako Araudiko 31. atalean aurreikusitako formulak ezartzea ekarriko du, elkartekideak bere borondatez erakundetik baja emanez gero. Zirkular honen bidez aldi berri honetan sor daitezkeen zalantzak argitu nahi ditugu, eguneroko jardunean halakoak agertzen jarraituko dutelakoan, eta bereziki denbora-tarte honetan metatutako erreserbak lekuz aldatu edo itzultzeko dauden aukera berrien inguruko argibideak eman nahi dizkizuegu.

Goian azaldutako horregatik guztiagatik, Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza honek ondoko xedapenak egin ditu:

1.- Borondatezko Gizarte Aurrezaintzarako Sistema ekarpenak egin eta prestazioak jaso edo erreserbak itzultzeko eskubidea gauzatzeko bateraezintasunak eta mugak.

1.1.- Elkartekide titularrak (aktiboa) pentsioa edo aldian behingo prestazioak jasotzeko eskubidea gauzatu gero, pasibo izaera hartuko luke (pentsio edo prestazioaren titular izaera), eta izaera berri hori bateraezina da Borondatezko Gizarte Aurrezaintzarako Sistemarako ekarpenekin.

1.1.1.- Aldi baterako pentsioen edo prestazioen kasuan, pentsio edo prestazio hori jasotzen den bitartean iraungo du bateraezintasunak. Prestazioak amaitutakoan, dela gertakizuna amaitu delako edo hartzaileak hala erabaki duelako, aldi horretan kontsumitu ez den kapitala metatutako erreserbatzat hartuko da eta pentsioa edo prestazioa ematean hartzaileak zuen antzintasun bera izango du aurrerantzean.

cada hecho causante de las prestaciones y requiere, a fin de evitar su utilización abusiva, el establecimiento de limitaciones a su ejercicio.

Para vigilar el exacto cumplimiento de tales limitaciones debe existir un control interno que revise las nuevas adhesiones a cada una de las Entidades, puesto que cada una define claramente en sus Estatutos las limitaciones y prestaciones con las que opera.

Asimismo se deberán añadir unas cláusulas explícitas en los boletines de adhesión, donde expresamente se delimiten los pagos de prestaciones y se indiquen las incompatibilidades y las limitaciones a la posibilidad de aportar para una contingencia, una vez que ésta ya se ha producido.

Por otro lado, a finales de 1998, se cumplen diez años desde las primeras aportaciones a Entidades de Previsión Social Voluntaria de modalidad individual.

Tal hecho significará la aplicación de las fórmulas previstas en el art. 31 del Reglamento aprobado por el Decreto 87/1984 para el caso de que se produjera la baja voluntaria del asociado. Mediante la presente circular se pretende dar respuesta a las dudas que nacen con esta nueva etapa y que a buen seguro seguirán apareciendo con la práctica diaria y en especial a las referidas a las posibilidades que se abren tanto de trasladar como de devolución de las reservas acumuladas en este período de tiempo.

Por todo ello esta Dirección de Trabajo y Seguridad Social establece las siguientes disposiciones:

1.- Incompatibilidad y limitaciones, en el Sistema de Previsión Social Voluntaria, de realizar aportaciones y percibir prestaciones o ejercer el derecho a la devolución de reservas.

1.1.- Hecho efectivo, por el socio titular (en activo), el derecho a pensión o prestaciones periódicas se adquiere la condición de pasivo (titular de pensión o prestación) la cual resulta incompatible con las aportaciones al Sistema de Previsión Social Voluntaria.

1.1.1.- En el caso de pensión o prestación temporales tal incompatibilidad alcanzará al total periodo en que se perciban las mismas. Finalizadas las prestaciones, por desaparición de la contingencia o voluntad del receptor, el capital no consumido durante el periodo tendrá la consideración de reservas acumuladas y gozará de la antigüedad que tuviera reconocida al momento de la concesión de la pensión o prestación.

1.1.2.- Borondatezko Gizarte Aurrezaintzarako Sistemara ekarpenak egiteko bateraezintasuna bi urtekoa izango da gutxienez, pentsioa kapital gisa osorik jasotzen den kasuetan edo, borondatezko bajarengatik, dirua itzultzeko eskubidearen barruan metatutako erreserba guztiak hartzen diren kasuetan.

Ekarpen berriek zenbaketa-aldi berria eragingo dute, ondorio guztietarako.

1.1.3.- Epe horren barruan, bi urtekoa gutxienez, pentsioa edo prestazioa jasoz gero, metatutako erreserba agortzen ez dituen kapital moduan, edo, bestela, erreserba itzultzeko eskubidea gauzatu gero, baina erreserba horren zati bat bakarrik eskuratuz gero, gertakizuna edo itzulketa (zatikako erreskatea) gauzatu den unearen aurreko hiru urteetan egindako ekarpenen batez besteko baliora mugatuko dira ekarpenak, urte osoko zenbaketa ginez.

Borondatezko Gizarte Aurrezaintzarako Sistemara egindako ekarpen guztiak edo zati bat behintzat derri gorrezkoak izanez gero, ez dira aintzat hartuko aurreko lerroaldean finkatutako mugak kalkulatzeko, inolako ondorioetarako.

1.2.- Pentsioa jasotzeko eskubidea, dela aldi baterakoa zein bizitza osorakoa, Heriotza eta Biziraupenaren ondorioz gauzatu gero, pentsio horren hartzaileek onuradun izaera hartuko dute, eta Zirkular honetako 3. idazatik bigarren lerroaldean, 4.3.1 c) idazatian eta 5. idazati osoan finkatutakoa aplikatuko zaie.

2.- Dagozkien gertakizunak jazotakoan, prestazioak ontzat ematea.

2.1.- Borondatezko Gizarte Aurrezaintzarako Era-kunde bateko kide diren pertsonak erakunde horien estatutuetan jasotako edozein gertakizunengatik dagozkien prestazioak jasotzeko eskubidea izango dute, dagokion egitate eragilea gertatzen den unean. Ondorio horietarako, ondokoa hartuko da egitate eragilearen datatzat:

2.1.1.- Sistema publikoko pentsioa jasotzeko eskubidea dutenen kasuan: pentsio hori eskuratzeko eskubidea hastean.

2.1.2.- Sistema publikotik aldian behingo prestazioak jasotzeko eskubidea dutenen kasuan: prestazio horiek jasotzeko eskubidea hasten denean, estatutuetan bestelakorik adierazten ez bada.

2.1.3.- Sistema publikotik pentsiorik edo aldian behingo prestaziorik jasotzeko eskubiderik ez dutenen kasuan: dagokion BGAEaren estatutuetan finkatutako gutxieneko datan.

2.2.- Zirkular hau indarrean sartzen denetik, erakundeotako kide berrien kasuan, kide egin direneko unean dagoeneko burutuak dauden gertakizunek eragindako pentsioak onartu ahal izateko, gutxienez 10 urteko ekarpenak eginak beharko ditu elkartekideak.

1.1.2.- El periodo de incompatibilidad para la realización de aportaciones al Sistema de Previsión Social Voluntaria será como mínimo de dos años en los casos de que la pensión se percibiera íntegramente en forma de capital o el derecho a devolución, por baja voluntaria, incluyera la totalidad de las reservas acumuladas.

Las nuevas aportaciones darán origen a un nuevo periodo de cómputo a todos los efectos.

1.1.3.- Durante el mismo plazo, mínimo de dos años, en los casos de percibirse pensión o prestación, en forma de capital, que no agote las reservas acumuladas o se haga uso del derecho a devolución solamente por una parte de las citadas reservas, las aportaciones se hallarán limitadas, en cómputo anual, al valor medio de las realizadas en los últimos tres años previos al momento de producirse la contingencia o la devolución (rescate parcial).

En el caso de que la totalidad o parte de las aportaciones, al Sistema de Previsión Social Voluntaria, tengan el carácter de obligatorias no serán tenidas, a ningún efecto, en cuenta para el cálculo de los límites señalados en el párrafo anterior.

1.2.- Cuando el derecho a pensión, temporal o vitalicia, se ejerza como consecuencia de Muerte y Supervivencia los perceptores de la misma tendrán la consideración de beneficiarios siéndoles de aplicación lo dispuesto en los apartados 3 segundo párrafo, 4.3.1 c) y 5 íntegro de esta Circular.

2.- Reconocimiento de las prestaciones una vez acaecidas las contingencias.

2.1.- Las personas incorporadas a una Entidad de Previsión Social Voluntaria podrán percibir las prestaciones, a las que tengan derecho por cualquiera de las contingencias protegidas en sus Estatutos, en el momento en que ocurra el hecho causante. A tal efecto se considerará como fecha del hecho causante:

2.1.1.- Para los que tengan acceso a pensión del Sistema público: La fecha de iniciación del derecho a pensión.

2.1.2.- Para los que tengan derecho a prestaciones periódicas del Sistema público: La fecha de iniciación del derecho a las mismas, salvo regulación expresa estatutaria.

2.1.3.- Para los que no tengan acceso a pensión o prestaciones periódicas del Sistema público: La fecha mínima que figure en los Estatutos de la EPSV competente.

2.2.- A partir de la vigencia de esta Circular, para las nuevas incorporaciones, el reconocimiento de pensiones, derivadas de contingencias ya perfeccionadas en el momento de tal incorporación, se hallará condicionado a la cobertura por el asociado de un periodo mínimo de aportaciones de 10 años.

3.- Aukeratzeko eskubidea.

Elkartekide aktiboek, dagozkien gertakizunak gauzatzean, aktiboan jarraitu ala pasibo egoerara (pentsio edo prestazioaren titular izatera) aldatzearen artean aukeratzeko eskubidea izango dute.

Heriotzak eta biziraupenak eragindako pensioak behala betetzekoak izango dira, eta ondorioz, onuradunek ezingo dute aurreko idatzian azaldutako aukera egiteko eskubiderik izango.

3.1.- Elkartekide batek pensioa edo aldian behingo prestazioa jasotzeari uko eginez gero, 2. puntuan adierazitako daten gaineko ondorioak izanik, BGAEko elkartekide aktibo gisa jarraitu ahal izango du, Estatu-tuetan halako elkartekideentzat finkatutako eskubide eta betebeharrak berberak izango dituelarik.

3.1.1.- Aukeraketa egin ondoren, aukera horretatik eratorritako prestazioak jasotzeko eskubidea gauzatu ahal izango du, ondorengo edozein unetan, baldin eta dagokion gertakizunak burutua jarraitzen baldin badu. Pentsioak edo aldian behingo prestazioak gertakizun horri dagokion izaera izango dute.

3.1.2.- Aurreko atalean azaldutako aukeraketa egin ondoren, beste egitate eragile bat gertatuko balitz, BGAEak babestutako ez bestelako gertakizun batek eragindakoa, 2. puntuan azaldutako eskubidea indarrean sartuko da berriro, kasu honetan gertakizun berri horrek eragindako prestazioak sortuko liratekeelarik edo, hala badagokio, 3. puntuan aurreikusitakoa aplikatuko litzatekeelarik. Elkartekideak eskubidez dagozkion prestazioen artean, nahiago duena aukeratu ahal izango du.

3.2.- Prestazioak jasotzeko eskubidea egitate eragile gertatu eta hiru hilabeteko epean gauzatu beharko du interesdunak. Epe horren buruan eskubide hori gauzatu ez balu, elkartekide aktibo gisa jarraitzeko aukera egin duela ulertuko da.

4.- BGAEko kide izatetik baja ematea. Erreserben itzulketa edo beste BGAE baterako aldaketa.

4.1.- Borondatezko bajak. Metatutako erreserben itzulketa (erreskatea).

Estatutuetan borondatezko baja aurreikusten den guztietan, eskubide horren gauzapena, ondoko arauekin bat etorri beharko du baja horrek, BGAEan 10 urteko gutxienezko antzinasun-epea bete ondoren betiere.

4.1.1.- Borondatezko bajatzat ulertuko da eskubidez elkartekideari dagozkion metatutako erreserba guztiak eskuratzea, baja eskatzen dutenek BGAEan gutxienez 10 urteko antzinasuna frogatu ondoren.

4.1.2.- Zati bat erreskatatuz gero, gabezia-aldi berdinekoa, metatutako erreserbari erreskatatutako zenbateko osoari gehi estatutuetan finkatutako gastu edo zigor-penalizazioa kenduko zaio.

3.- Derecho de opción.

Los asociados en activo, en el momento de concurrir las contingencias, tendrán el derecho de opción entre continuar en activo o pasar a la situación de pasivo (titular de pensión o prestación).

Las pensiones derivadas de muerte y supervivencia serán inmediatamente ejecutivas no poseyendo, en consecuencia, sus beneficiarios la opción que se señala en el apartado anterior.

3.1.- Cuando un asociado optara por no percibir la pensión o prestación periódica, con efectos de las fechas señaladas en el punto 2, podrá seguir como asociado en activo en la EPSV, siéndole de aplicación los mismos derechos y obligaciones que para tales socios se contemplan en los Estatutos.

3.1.1.- Una vez realizada tal opción podrá, en cualquier momento posterior y siempre que la referida contingencia continúe perfeccionada, ejercer su derecho a prestaciones de ella derivadas. La pensión o prestación periódica tendrán el carácter que a tal contingencia sea debido.

3.1.2.- Si realizada la opción que se señala en el apartado anterior se produjera un nuevo hecho causante, derivado de otra y diferente contingencia de entre las protegidas en la EPSV, se rehabilitará el derecho señalado en el punto 2 devengándose en este caso las prestaciones que de la nueva contingencia se derivaran o, en su caso, la nueva aplicación de lo previsto en el punto 3. El asociado podrá elegir el carácter de la prestación que desee percibir de entre a las que haya podido causar derecho.

3.2.- El derecho a prestaciones deberá ejercitarse por el interesado en el plazo de tres meses desde la fecha del hecho causante. En el caso de que no se ejercitara el derecho, en tal plazo, se entenderá realizada la opción a favor de la permanencia como socio activo.

4.- Baja del asociado en la EPSV. Devolución de reservas o traslado de las mismas a otra EPSV.

4.1.- Bajas voluntarias. Devolución de reservas acumuladas (Rescate).

Siempre que los Estatutos prevean el derecho a la baja voluntaria. El ejercicio del citado derecho, una vez completado el periodo mínimo de 10 años de antigüedad en la EPSV, se ajustará a las siguientes reglas:

4.1.1.- Se entenderá por baja voluntaria la percepción total de reservas acumuladas, a las que se tenga derecho, en una EPSV por acreditar los asociados que lo soliciten una antigüedad de al menos 10 años.

4.1.2.- Los rescates parciales, con igual periodo de carencia, minorarán la cuantía de las reservas por importe del total rescatado más los gastos y/o porcentajes de penalización que los Estatutos establezcan.

4.2.- Derrigorrezko bajak.

Elkartekideak elkartekide izateko eskubidea edo betebeharraren oinarritzen duten baldintzaren bat betetzea-ri utziko balio, kide zeneko BGAEtik derrigorrezko baja eragingo luke. Elkartekide izandako denbora-tartean metatutako erreserbak erreskatatu edo beste BGAE batera aldatu ahal izango ditu, Erakunde horretako Estatutuen arabera horretarako eskubidea jasotzen bada eta ondokoekin bat etorri behiere:

4.2.1.- BGAEan derrigorrezko baja burutu ondoren, metatutako erreserben balioa kalkulatu eta erreserba horien zenbatekoa geroan beste pentsioa bat eratzeko behar bestekoa izan ezean, berauek itzuli edo metatutako guztia beste BGAE batera aldatzeko aukera eskainiko zaio elkartekide ohiari, baja eman eta sei hilabete epearen buruan.

4.2.2.- Metatutako erreserbak BGAEren Estatutuetan aurreikusitako gutxieneko pentsioa eratzeko adina-koak badira, elkartekide ohiak «ekarpenetatik etenda» egongo da, babestutako edozein gertakizun sortu arte edo 10 urte igaro arte, orduan zirkular honetako gainerako puntuetan finkatutakoa aplikatuko baitzaio.

4.3.- Kapitalak edo metatutako erreserbak lekuz aldatzea.

Metatutako erreserbak kapitalizatu ondoren, eta baldin eta utzitako BGAEko estatutuek baimentzen badute:

4.3.1.- BGAE batetik bestera aldatu ahal izango dira soilik, eta interesdunak elkartekideek metatutako erreserbak idatziz eskatu beharko ditu alde aurretik ondoko kasuetan:

a) Borondatezko baja Erakundearen estatutu eta araudian aurreikusitako prestazioak eragiten dituen egitate eragilea burutu aurretik eginez gero eta gutxienez 10 urteko antzinatasuna frogatuz gero.

b) Ez da inolako gabezia aldirik eskatuko, beste BGAE batera aldatzeko eskaria aurreikusitako gertakizunen bat gauzatuz gero, edo bestela, BGAE baten deuseztapen eta kitapen kasuan edo elkartekidearen derrigorrezko baja kasuan.

c) Heriotza eta biziraupenetik eratorritako pentsioaren onuradunek, beren eskubideengatik dagokien kapitala elkartekide aktibo izaera duteneko BGAEra aldatu ahal izango dute.

4.3.2.- BGAE batetik bestera aldatzean, ondoko arauak bete beharko lirateke:

a) Kapitala edo metatutako erreserbak beste BGAE batean sartu ahal izateko erakunde hartzaileak eskubide horiek batetik bestera aldatzen dituen pertsona onartu beharko du alde aurretik.

4.2.- Bajas forzosas.

La pérdida, por parte de los asociados, de cualquiera de los requisitos que sustentan el derecho o la obligación de ser asociado provocará su baja forzosa en la EPSV a la que pertenecieran. Las reservas acumuladas durante el periodo de pertenencia, en los casos que se consoliden derechos según sus Estatutos, podrán ser objeto de rescate o traslado ajustándose a:

4.2.1.- Producida la baja forzosa la EPSV calculará el valor de las reservas acumuladas y en el caso de que la cuantía de las mismas, a efectos de constituir una pensión futura, sea manifiestamente insuficiente podrá conceder, en el plazo de seis meses desde la fecha de baja, al exasociado la opción de devolución de las mismas o el traslado del total acumulado a otra EPSV en la que reúna requisitos para ser asociado en activo.

4.2.2.- Si las reservas acumuladas hubieran alcanzado valores suficientes para constituir la pensión mínima, prevista en los Estatutos de la EPSV, el exasociado permanecerá en la situación de «suspensión de aportaciones» hasta la aparición de cualesquiera contingencia protegida o el transcurso de 10 años momento en que le será de aplicación lo dispuesto en los restantes puntos de esta Circular.

4.3.- Traslado de capitales o reservas acumuladas.

Previa capitalización de las reservas acumuladas y siempre que lo permitan los Estatutos de la EPSV cede:

4.3.1.- Serán movilizables, exclusivamente entre EPSV, y previa solicitud por escrito del interesado las reservas acumuladas de los asociados en los siguientes supuestos:

a) Cuando la baja voluntaria se produzca antes del hecho causante de aquellas prestaciones contempladas en los Estatutos y Reglamentos de la Entidad y se acredite una antigüedad de al menos 10 años.

b) No se exigirá periodo de carencia alguno cuando la solicitud de movilización se produzca una vez ocurrida alguna de las contingencias previstas o en los supuestos de disolución y liquidación de una EPSV o baja forzosa del asociado.

c) Los beneficiarios de pensión, derivada de muerte y supervivencia, podrán trasladar el capital a que de origen sus derechos a una EPSV en la que tengan la condición de asociados en activo.

4.3.2.- Deberán seguirse las reglas siguientes en la movilización:

a) Para la efectiva integración del capital o las reservas acumuladas en otra EPSV se exigirá, a la persona que moviliza los citados derechos, la previa aceptación por parte de la Entidad receptora.

b) Antzinasuna elkartekideak BGAE batean ekarpenak egiten hasten den unetik aurrera hasiko da.

c) Aurreko puntuan esandakoaren kaltetan izan gabe ere, metatutako erreserba guztiak batetik bestera aldatuz gero, aurreko BGAEan eskuratutako antzinasuna ondorio guztietarako zenbatuko da erakunde berrian, eta horretarako, BGAEa uzten dueneko elkartekidearen antzinasunaren egiaztagiria luzatu beharko du aurreko Aurrezaintzako Erakunde horrek.

5.- BGAEen jarduketak.

5.1.- Elkartekide batek ezingo du BGAE bereanaldi berean eta bitan elkartekide aktibo gisa izen emanda egon. BGAE beraren barruan mota bat edo gehiagotako inbertsio-aukeretan parte hartzea (BGAEetako barne-planak) edota plan batetik besterako diru-aldaketak egin ahal izango dira, Estatutuek bestelakorik adierazi ezean.

5.2.- BGAE batean baino gehiagotan dauden elkartekideei dagokienez, erakunde horietako bakoitzak erakunde horretan zenbat urte daramatzen adieraziko du, beste erakunde batean emandako urteak kontuan hartu gabe.

5.3.- BGAEek Zirkular honetan jasotakoaren berri eman beharko diete banan-banako elkartekide berri guztiei, horrekin batera behar besteko informazioa eman ez. Era berean, beren eskubide guztiak modu askean eta eurek erabakitako unean gauzatu ahal izateko 10 urteko burutzapen-epea dagoela adierazi beharko diete argi eta garbi.

5.4.- Zuzendaritza honek egunerokoan partikularrekin harremanetan dauden kudeatzaileei Zirkular honetan jasotzen diren bateraezintasunen eta mugen berri emateko gomendatzen die BGAE guztiei, nahiz eta erakunde horiek elkartekide berri guztiei horren berri eman beharko dieten, eta elkartearen kide egiteko boletinetan ere klausula baten bidez horren berri ematea komeni litzatekeen.

5.5.- Ezinbestekoa den zuzenbideko segurtasuna sendotzearen, eta egun araupetzen diren mugaketa eta bateraezintasunak aintzat hartuta, Lan eta Gizarte Segurantzarako Sail honek beste azken gomendio bat egin nahi du, alegia, Zuzendaritza Organoen babesarekin, bateraezintasun eta mugaketa horiek berretsi eta jaso ahal izateko, erakunde bakoitzak beren estatutuetan dagozkien aldaketak egin ditzala.

Indarrean sartzea.

Zirkular hau 1999ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, BGAEetarako finkatutako betebeharrak formalak sei hilabeteko gehienezko epearen buruan burutzearen kaltetan izan gabe.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko abenduaren 22a.

Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendaria,
LUIS MARÍA VALLE BOLINAGA.

b) La antigüedad comenzará a contar desde el momento que un asociado inicia sus aportaciones a una EPSV.

c) No obstante el punto anterior, en caso de traslado de la totalidad de las reservas acumuladas, la antigüedad previamente adquirida, en la EPSV cedente, computará a todos los efectos. Para ello, la EPSV cedente, acreditará fehacientemente la antigüedad del socio saliente.

5.- Actuaciones de las EPSV.

5.1.- Un asociado, no podrá estar inscrito, como asociado en activo, dos veces simultáneamente en la misma EPSV. La pertenencia a una o varias formas de inversión (Planes internos de la EPSV), así como los movimientos de fondos entre ellos, dentro de una misma EPSV será libre salvo regulación expresa en los Estatutos.

5.2.- Para el caso de asociados integrados en varias EPSV, cada una de ellas únicamente podrá certificar los años de permanencia efectivos en su propia Entidad con independencia de los que haya permanecido en otra Entidad.

5.3.- Las EPSV, en todas las nuevas incorporaciones individualizadas, deberán informar, de forma comprobada y suficiente, lo recogido en la presente Circular. Indicando expresamente la fecha de perfeccionamiento del plazo de 10 años a partir del cual podrá ejercer, libre y en cualquier momento, todos sus derechos.

5.4.- Esta Dirección, recomienda para todas las EPSV implicadas, la necesidad de informar a todos los gestores, que a diario tratan con los particulares, de las incompatibilidades y limitaciones recogidas en la presente Circular. Sin obviar por ello una posterior revisión interna de la propia Entidad de toda nueva incorporación y una posible inclusión clausular en los boletines de adhesión.

5.5.- A fin de reforzar la necesaria seguridad jurídica y ante las incompatibilidades y limitaciones que hoy se regulan, es también recomendación de esta Dirección de Trabajo y Seguridad Social, la de que de cada Entidad realice las modificaciones pertinentes en sus Estatutos al objeto de ratificar y dejar constancia de las mismas con el respaldo de los Órganos de Gobierno.

Entrada en vigor.

La presente Circular entrará en vigor el día 1 de enero de 1999, sin perjuicio de que las obligaciones formales que se establecen para las EPSV se hagan efectivas en un plazo máximo de seis meses.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de diciembre de 1998.

El Director de Trabajo y Seguridad Social,
LUIS MARÍA VALLE BOLINAGA.